

Gipuzkoako enpresa sarearen aukerak, balio diferentziala eta iraunkortasuna sustatzeko programa.

VIII. ERANSKINA: EZAGUTZA

Urtea :2021 | Ekonomia Sustapena

DESKRIBAPENA

Aldeko testuingurua sustatzea trantsizio ekologiko, sozial eta ekonomikoek eragingo dituzten aukerak sortzeko, eraikitzeko eta/edo aprobetxatzeko, ikerketaren, transferentziaren eta hedapenaren bidez, Gipuzkoako ekosistema sozioekonomikoa balio erantsi eta/edo jasangarriko, gaitasun berrien garapeneko eta kalitatezko enpleguko eremuetara eramateko.

ENTITATE ONURADUNAK

- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarean sartuak dauden eta Gipuzkoan kokatuta dauden entitateak.
- Gipuzkoan kokatutako enpresa-elkarteak eta klusterrak.
- EAEn kokatuta dauden eta Gipuzkoan kokatutako enpresen interesak ordezkatzeko dituzten enpresa elkarteak eta/edo klusterrak.
- Dirulaguntzaren xede diren gaietan espezializatutako zerbitzu aurreratuen enpresak, Gipuzkoan kokatuak.

DIRULAGUNTZAREN XEDE DIREN JARDUERAK

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak honako hauek izango dira:

- Funtsezko ikerketa proiektuak.
- Ikerketa industrialeko proiektuak.
- Garapen esperimentaleko proiektuak.
- Interes bereziko ekintza osagarriak: Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko (ZTBES) erakunde bat, gutxienez, barne hartzen duten ekintzak, prospektiba eta zaintza azterlanak egiteko; eta lankidetzak, transferentzia, dinamizazioa, sustapena, hedapena eta zabalkundea bultzatzeko ekintzak, funtsezko eta industria arloko ikerketa proiektuekin lotutako jardueretan.



DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN KOSTUAK

Diruz lagungarriak izango dira entitate eskatzaileak aurkezten duen aurrekontu banakatu eta xehatuan jasotako kostuak, jardueraren garapenari zalantzarik gabe lotuta daudenean. (Ikusi diruz lagungarriak diren kostuak I.eranskina - 12.oinarria eta VIII.eranskina - 5.oinarria).

DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA

Laguntzen ehunekoak honako hauek izango dira:

- a) Funtsezko ikerketa proiektuen kasuan, diruz lagundu daitezkeen kostuen % 100.
- b) Ikerketa industrialaren proiektuetan, diruz lagundu daitezkeen kostuen % 50.
- c) Garapen esperimentaleko proiektuetan, diruz lagundu daitezkeen kostuen % 25.
- d) Interes bereziko ekintza osagarrietan, diruz lagundu daitezkeen kostuen % 100 funtsezko ikerketa proiektuei lotuta badaude, eta % 50 ikerketa industrialeko proiektuei lotuta badaude.

(Ikusi dirulaguntzen gehiengo ehunekoak gehitzea VIII.eranskina - 6.2 oinarria).

EMATEKO PROZEDURA

Laguntza emateko prozedura, lehiaketa bidezkoa izango da, deialdi eta hautapen prozedura bakar baten bitartez.

BATERAGARRITASUNA ETA BATERAEZINTASUNA

VIII. Eranskinetako dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste edozein administraziok edo erakunde publikok nahiz pribatuk, estatukoak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko erakundeetakoak, helburu bera lortzeko emandako diru laguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabideekin, ekainaren 17ko 651/2014 Erreklamendu Orokorrak, kategorien arabera salbuespenari buruzkoak, aurreikusitako gehieneko kopurura arte.



BETETZEKO EPEAK

Eskaerak aurkezteko epea: 2021eko uztailaren 19an, goizeko 12:00etan amaituko da.

Jarduerak hasteko epea: dirulaguntza eskatu ondoren hasiko dira, urte naturalaren barruan.

Proiektuen exekuzio data: 2022ko ekainaren 17a.

Proiektuak justifikatzeko data: 2022ko uztailaren 17a

ARAUDI APLIKAGARRIA

Gipuzkoako enpresa sarearen aukerak, balio diferentziala eta iraunkortasuna sustatzeko programaren 2021eko oinarri arautzaileak eta deialdia: VIII.ERANSKINA - Gipuzkoako ekosistema sozioekonomikoan ezagutza sustatu, sortu, transferitu eta partekatzea. (2021eko ekainaren 15eko Diputatuen Kontseiluaren erabakia. [GAO 114 zk. 2021eko ekainaren 18an](#)).

ESKAERA EGITEKO URRATSAK

- Informazioa eta dokumentuak
<https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ekonomia/programak-eta-laguntzak/lehiakortasuna/ezagutza>
- Eskera kudeatzeko aplikatiboa
<http://sustapena.gipuzkoa.eus/kudeaketa>

EDOZEIN ZALANTZA IZANEZ GERO, KONTSULTATU

EKONOMIA SUSTAPENENKO ZERBITZUA

Kudeaketa administratiboa: 943.113981

Kudeaketa teknikoa: 943.112217

sustapena.lehiakortasuna@gipuzkoa.eus